

b.e.r.r.i.a.k

z.i.r.i

**JUAN IGNACIO
BARRERO
VALVERDE**

Senatuko presidentea



«Subiranotasun partekatua ez da Konstituzioarekin bateragarria»

EL PAIS

JUAN COTINO

Polizia Nazionaleko zuzendari nagusia



«Etarrek kobratzeagatik jarduten dute krimenaren»

LA VANGUARDIA

PEPE RIBAS

'Ajoblanco' aldizkariako zuzendaria



«Errealitatea aldatu egin behar da, ez ukatu. Ahal denagatik borrokatu behar da, ez ezin denagatik. Bizitzarekin itundu behar da»

EL MUNDO

MARTINA HINGIS

Tennisleria



«Esango nuke goi-goian egotea baino bizimodu hoberiak dagoela»

EL PAIS SEMANAL

i r i t z i a

zuzendaritari

Egin, ez egon

Hitz bi Zubizarreta jaunari: Bortxaren aurka (bortxa ororen aurka, ulertzen da) eta bortxaz lortutakoaren aurka, nik ere egon nahi nuke. Bakarrik, ez dakit hori nola egiten den: nortasun agiri bat daukat, zergak ordaintzen ditut, Ertzaimaren eta Epaitegien existentzia protestatu gabe pasatzen ditut egunoro, deskuidatzen bazara funtzionarioa naiz... Bortxaren produktu artean bizi naiz egun osoa.

Bestalde, mitoak mito, historia okerren bat irakurria ez badut, Gandhiren India ez zen bortxa gabe askatu. Eta askatu eta gero ez zuen bortxa gabeko gizartea antolatu: armada gabe, polizia eta epaitegi gabe, etab.

Mila aitzakiares ihesi, nik ez nuke nahi mila gezurretan erori. (Gandhiren ez biolentzia-aktiboa! mila jende moduk mila aldiz aipatu digu hemen aspaldian, eta denak pasiboen geratu dira berak beti, Zergatik?).

Bukatzeko, Teoria unibertsal absolutuak (bortxa oro...!, etab.) gauza askotarako izan daitezke oso onak: deus ez egitea justifikatzeko, adibidez. Arazo konkretu bati soluzio konkretu bat bilatzeko, ezertarako ez dira beharrezkoak. Orduan, beti bortxa ororen aurka egon santuan egon ordez, egin liteke zertxobait hemengo arazoak daukazan hemengo bortxaren soluzio bat hemen asmatzen laguntzeko besterik ez bada, gezur batzuk agerian jarri.

• **Joxe Azurmendi**
DONOSTIA

Mungian badago zer!

Oskorrikoek ez lukete Galizara aide egiteko gogorik geurea ezagutuko balute. Herri honetan kultura eta eskararen munduan aritzen garenok badugu mila motibo bizitzeko alai, udaletxetik hasita eta Torrebilela gazteluan bukatuta, guztia da eder, erraz eta polit. Udalak adibidez elkarte eta kultur-talde guztiak eskaintzen die aukera eta arreta berdina. beste leku batzuetan ez bezala: adibidez abarketagitza txapelketa bat antolatu nahi baduzue, diruz eta abarrez lagunduko dizuete, eta inolaz ere ez, laguntzak ukatu eta bizpahiru hilabetegarenen berak beste bat antolatu diruz ondo hornitua. abarketa haundia goak erabiliz etab... zeuori ideia kopiatuta, ro-yaltirik gabe jakina. Ederto beraz: ez bazterkeriarik, ez eta ezberdinkeriarik, ez antzerkorik! kultur-eteak ere beste hainbeste. Urteko plan-

gintza egin baino lehen talde guztien iritzia eta parte hartzea eskatuko dizuete, eta ez inoiz edo ia inoiz ez laguntza puntuala eta musutrukekoa, dirua ez baitago hortik baztertera botatzeko, segun eta zein bazterretara batez ere...

Horrez gain herri gozoa duzue hau edozein ekimenetarako, hemen ez dakigu zer diren jauntxoak, ez dugu elitismorik ezagutzen, oztopo eta traba ez dakigu non bizi diren; gutxi batzuk dira lagundu eta parte hartzeko prest egoten ez direnak eta gainera katuak ere euskaldun izanik, ez daukagu inoren beharrik. Ah! eta alderdikeria... zer da alderdikeria?, zenbat gara? Nondik gatzoz eta nora joan gintezke?, zer gara gu, nor gara gu?...

• **Asier Legarreta eta Jonjo Agirre**
MUNGIA (BIZKAIJA)

Erdian zaudeteno!

Gaur hasi dira HBko mahaikideak barrura sartzen. ETaren Santto Domingoko ordezkaritza ere barruan dute zain. Inuzenteenak ere badaki egoera honetan ez dela posible elkarrizketa edo negoziatiorik. Nola osatu bake-mahai bat borrokan inplikatuena dagoen gizarte sektorearen ordezkaritzak bertan esertzirik ere ez duenean? PPK astakeria horrekin esperantza eta baikortasuna baztertu ditu guda-zelaitik. Kontua da egoera horren aurrean zer egin. Atutxak proposatzen duena egin daiteke: beste zazpi urte horrela jarraitu, duela hoge urte gertatzen ez zenik ez baita gertatuko inguruetan. Baina, klaro, taminako astakeria hoge urte hauetan gustora egon den norbaitek esan dezake, beste inork ez. Demokrazia egarri garenok edota gatazkaren aidetik gordinenak bizi dituztenek bere burua erresignazioa kondenatzea baino nahiago izango dugu egoera desblokeatzeko biolentzia erabiltzen jarraitu edo proposamen berri ausartak entzun.

Gogoeta hauekin nabilela Gorka Knörren artikuluak barrabik azkuretu dizkit. Bera, orain ere, erdian omen dago. Oraindik ere erdian egotea tokatzen omen zaio. Berak, noski, ez du erdian egin nahi, baina inguruko guztiak hain dira txarrak eta hain maila berdinean, zen eta berak ez baitu erdiaren erdian egotea beste erremediirik, gizarajoa. Jakina da, ordea, gatazkaren aldeekin ados egon ez arren, gatazkaren irtenbide elkarrizketatua defendatzeko sortu zela *erdia* Euskal Herrian. Jarrera honek berez oso jarrera aktiboa exijitzen du, hitz egin nahi ez dutenak identifikatu eta hitz egitera behartu; baina, alderantziz, gizaratearen

sektore aktiboenak bildu beharrean *erdia* gizarteko sektorerik errososenak biltzen hasi zen. Horrexegatik hain zuzen izan dut beti halako errezele apur bat (kamioikadak) Elkarri, ELA, EA, IU eta abarrekin. Zertarako sortu dute erdia: bakea ekarri nahi dutelako?, edo, alderantziz, gerta ala gerta eroso bizitzen jarraitu nahi dutelako? Zentzu honetan egungo egoera inoiz baino garbiagoa da: gartzelak gizentzen dituzten bitartean, gatazkaren irtenbide elkarrizketatua ezinezkoa egiten dute Madrildik. Erdiak orain du momentu proposa ea zertarako sortu den frogatzeko. Gorka Knörren garbi dago: berak. Atutxari jarraituz, orainarte bezala jarraitu du: erdian. ELAren ere garbi dago: ez dago erdian, HBrekin dago greba egunean. Hirugarren espazioaren korapiloa urte hauetan askutuko da, eta berriz ere bakoitza dagokion tokian jarriko da, disfraciz gabe eta, ahal bada, trapu zaharrak gabe ere bai.

• **Ekai Txapartegi**

SARAUZ (GIPUZKOA)

Juridikoki dena da posible

Behinola, Buesa jaunaren Eskola Publikoaren Legea berehalako batean zetorkigula eta, zer egin eta nola jokatu eztabaidatzen ari gineneko bilera batean, gogoan dut estimu handian eta adiskide on dudana jurista eta irakasle bati galdetu niona: «... baina hori juridikoki posible al da?». Eta berak, agian nire galdera inozoari garrantzirik kendu ez nahirik edo, zera erantzutan irri-farrez: «Juridikoki dena da posible, borondate-rik izanez gero».

Eta, nooo!, aitortu behar dut behin eta berriro izan dudala, nire sinplezian, erantzunaren balioa frogatzeko aukera: dela euskal presoentzako desertsioa, dela gure Herriaren oinarriko eskubideen errespetua, edo HBren Mahai Nazionalaren kondena ikusi besterik ez, legeak zer-nolako *malgutasunez* aplikatu daitezkeen. Baina, aizu, adiskide, ez zenidan esan borondatearen arabera *funtzio posible hori* alde bataren komenentzian bakarrik ematen zela; hau da, borondate hori boterearen *komenentziazko* ama legala dela.

Eta hemen, dakienez jakin daki, eta inguruaz aztertzeke gai denak ere bai.

• **Jose Ramon Arbe**
GASTEIZ

s e i k o u r r e a

Xabier Euzkitze**Bakea eta boikotatzaileak**

Sinestezina da, zenbat eta buelta gehiago eman, orduan eta sinestezinagoa. Edonolako gatazka, sinestezin, haserre, zapuzaldi edo liskarra dagoelarik, batzuen eta besteen jarrera eta irizkiak jasotzea da irtenbidea emateko lehen pausoa, baldin eta bi aldeek, edo bietako batek, arazoa herdoildu eta betiko bere

horretan gera dadin nahi ez badute. Espaldia hasi nintzen espainiar agintariek gatazka hau abaliki eta gehien luzarazi nahi ote duten susmoa hartzen, eta gero eta komenentzimen du handiagoa dut horretaz. Nola uler daiteke bestela?

Euskal alderdi politiko legezko batek borroka armatua erabiltzen duen talde baten proposamena aidertatzeko baliatu zituen hauteskundeak. Zalantzarik gabe, beste zilegitasun bat lortuko zukeen aidi berean suetena iragarri izan balu baina, edonola ere, urrats handi eta garrantzitsua izan zen, batez ere herritarren gehiengoaren ebazpena onartzeko prest zegoela iragarri zuelako. Hori, edonork eta edozein garaitan eskainita ere, demokraziaren funtsean oinarritutako proposamena da. ETaren alternatiba denok eztabaidatu behar genuke, eta horretarako zabaldu egin behar da lehenik, ahalik eta gehien hedatu. Horixe besterik ez zuen egin Herri Batasunak.

Iritzi xume hau irakurle on eskuetara heltzerako kartzelan egongo dira, segururik, 23 mahaikideak. Justizia izenekoaren bide-

gabekeria izugarria iruditzen zait. Gainerako euskal preso politiko nahiz arruntek ez bezala zein espetxetan egon nahi duten hautatzeko aukera izanik ere, astakeria penagarria dela deritort. Ez erurrik gabe itzailean egon beharko dutelako, horregatik bakarrik ez behintzat, Auzitegi Gorenaren epaiake bake itzaropena hondoratu dutelako bai.

Unerik zailenetan erakutsi behar izaten da gaitasuna. Inoizko zailenak hauek izan dira HBrentzat eta berriz ere erakutsi du zerbaite mugitzen ari dela. Azken huelgetako porrotaren mamuak izango zuen zenikusirik, hori ez da, ordea, eman duen pausoiri balioa kentzeko arazoa. ELA eta LABen proposamena onartu izanak epairik mada-rikatuena kanatu gaitzakeena baino gehiago bilduko gaitu. Beldur naiz, ordea, ekintza interesgarri ororen atzean dauden boikotatzaileak ez ote diren bi muturretatik etortzen. Ortzirale goizeko eraso eta ETaren atentua izan dela baieztatzen bada, unoetako irribarretxo zuhurra ere izoztu egingo baitzaigu. Nolanahi ere, gero eta argiago ikusten da: geuregan dago gako.